

PRACTICUMEKO GIDA

GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA


HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

EHU/UPV



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Elisabet Arrieta, Marian De la Caba, Rakel del Frago, María Dósil, Joxe Garmendia, Joxe Jiménez, Arkaitz Lareki, Jon Mikel Luzarraga, Joana Miguelena, Hilario Murua, Goretti Orbea, Iker Pérez, Iñaki Pikabea, Eli Sáenz, Esther Uria y Ana Villamor

AURKIBIDEA

1. Planteamendu orokorra	4
1.1. Practicumaren helburu orokorrak	4
1.2. Practicumeko gaitasunak.....	4
1.2.1. Practicum leko gaitasunak	4
1.2.2. II. eta III. Practicumeko gaitasunak	4
1.3. Profila, eginkizunak eta balizko jarduera arloak	5
1.3.1. Profila	5
1.3.2. Eginkizunak	5
1.3.3. Balizko jarduera arloak.....	5
1.4. Lanbide deontologia	6
1.5. Hezkuntza, Fiolosfia eta Antropologia Fakultateko Practicumaren antolakuntza egitura	7
2. Practicuma: kredituak eta egiteko epea. Egutegiak eta ordutegiak.....	8
3. Practicumeko esleitzeko prozesua	9
3.1. Aurkezpen orokorra.....	9
3.2. Praktiken aurrehautapena.....	9
3.3. Autopracticum	9
3.4. Zentroa esleitzea	10
3.5. Erreklamazioak.....	10
4. Arauak.....	11
5. Practicuma abian jartzea	13
5.1. Zentroarekin harremanetan jartzea eta ikasleei deialdia egitea.....	13
5.2. Practicuma hastea praktiketako zentroan	13
6. Practicumeko tutoretza gauzatzeko prozedura	14
6.1. Tutoretza gauzatzeko baldintzak.....	14
6.2. Praktiketako zentroko instruktoreen eskubideak eta betebeharrak.....	14
6.3. Fakultatteko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.....	14
6.4. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	15
7. Practicum len garapen metodologikoa.....	17
7.1. Aurkezpena	17
7.2. I. Blokea.....	17
7.2.1. Helburua	17
7.2.2. Prozedura metodologikoa.....	17
7.3. II. Blokea	18
7.3.1. Helburua	18
7.3.2. Prozedura metodologikoa.....	18
8. II. eta III. Practicumaren garapen metodologikoa	19
8.1. Aurkezpena	19
8.2. I. Blokea	19
8.2.1. Helburua	19
8.2.2. Prozedura metodologikoa.....	19
8.3. II. Blokea	20
8.3.1. Helburua	20
8.3.2. Prozedura metodologikoa.....	20
9. Azken memoria.....	21

10. Practicumaren ebaluazioa	24
10.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa	24
10.2. Instruktoarearen ebaluazioa	24
11. Kontaktu interesgarriak.....	25
12. Practicumari buruzko legedia.....	25

1. PLANTEAMENDU OROKORRA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntza Graduko ikasketa-planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du unibertsitateko ikasketak lanbide - jardunera gerturatzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza - edo gizarte - errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko, eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzen

1.1. PRACTIMUMAREN HELBURU OROKORRAK

- Ikasleen oso-osoko prestakuntza bultzatzea, haien ikaskuntza teoriko eta praktikoa osatuta.
- Lanbide errealitatera egokitzen den lan metodologia ezagutzen laguntzea ikasleei, eskuratutako ezaguerak kontrastatuta eta aplikatuta.
- Ikasleek gaitasun tekniko, metodologiko, pertsonal eta partaidetzakoak gara ditzaten bultzatzea.
- Ikasleek esperientzia praktikoa eskuratzeko, lan-merkatuan sartzen eta beren enplegarritasuna hobetzen laguntzeko.
- Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzaitzaren balioak bultzatzea

1.2. GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUMEKO GAITASUNAK

1.2.1. Practicum leko gaitasunak

1. Aldez aurreko trebakuntzaren edukien eta horien zehaztapen praktikoaren arteko harremana ezartzea, aurkeztu diren zentro eta praktika adierazgarrienen bidez.
2. Banakako harremanetarako eta komunikaziorako trebetasuna eskuratzeko eta agertzea lan taldean aritzeko.
3. Jarduera arloen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea, modu orokorrean, elkarlanaren dinamikari jarraituz.
4. Lanbidearekiko jarrera etiko eta deontologikoa izatea.
5. Gizarte-hezitzaileen lanari eta erakundeen kulturari buruzko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, idatziz zein ahoz.
6. Gizarte Hezkuntzako profesional moduan trebatu, hezkuntza ekimenetan modu burutsuan arituz.

1.2.2. II. eta III. Practicumaren gaitasunak

1. Gizarte hezkuntzako testuinguruetan profesionalki esku-hartu, gai ezberdinetako teoria eta praktika oinarri direla, ikuspegi etiko eta deontologia profesionala errespetatuz.
2. Hezkuntza ekintzaz arduratu, lanbidearen nortasunaren errekonozimendutik eta gizarte hezitzaileen funtzio profesionaletatik abiatuz.
3. Talde lanaren bitartez ezagupena sortu, gizarte hezkuntzaren

lanbidearen izakera eta bete beharretaz aritu, ikerketa erabiliz eta praktikaren azkerketan oinarrituz.

4. Idatziz eta ahoz, eta arrazoiak erabiliz, gizarte hezitzaileen lan profesionalaren gogoetak eta erakundeen kultura ezberdinak jakinarazi.
5. Gizarte-hezitzaile ekintzak diren proiektu eta programen plangintza egin, garatu eta ebaluatu, erreferentzia diren errealitate bateko diagnostikoen ondorioak eredu izanik.
6. Proposamenak sortu, tresnak eta hezitzaileak diren lanabesak eraiki, hezitzaileak diren ibilbide, testuinguru eta baliabideak aberastu eta hobetzekotan.
7. Jakintza alor-arteko eta erakunde barneko taldeetan lanean aritzeko gaitasuna.

1.3. PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA AROLAK

1.3.1. Profila

Gizarte Hezkuntzako graduduna gizartearen eta hezkuntzaren arloko profesionala da, eta garapen pertsonala, soziala eta komunitarioa bultzatzen duten prozesu sozio- hezitzaileak sortzen ditu. Batez ere harreman-tresnetatik abiatuta, gizarte- hezitzailearen asmoa da pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobetzea, zailtasun eta desabantaila sozial handiko egoerei adi egonda.

Gizarte-hezitzaileak honako ezaugarri hauek behar ditu: esku-hartze sozio-hezitzaile ez- formalarekiko sentikortasuna, hainbat kolektiborekin lan egiteko motibazioa (helduen eta adinekoen prestakuntza, egoera sozial ahulean dauden pertsonen gizareratzea, animazio soziokulturala), pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna, komunikatzeko trebetasuna eta jendearekiko enpatia, pentsamendu analitiko eta kritikoa, jarrera kritikoa gizarte-gertaeren aurrean, eta parte hartzeko, lankidetzarako eta talde-lanerako interesa.

1.3.2. Eginkizunak

Profesionalak garatu beharreko eginkizunen artean honako hauek aurkitzen dira:

- Gizarte-hezkuntzako proiektu eta programen diseinu, garapena eta ebaluazioa.
- Diseinatutako jarduerak koordinatzea eta heziketa harremanak eta gizarte sareen aldeko sormena.
- Taldeen eta baliabideen sustapena, antolakuntza eta kudeaketa.
- Diziplinarteko taldeetan eta lan-saioetan parte hartzea
- Pertsonetikiko harremanak: enpatia eta sentikortasuna esku-hartze soziohezitzaileetan.

1.3.3. Balizko jarduera arloak

Gida honetan aipatu diren lanbideratze arlo profesionalak balizkoak dira. Horrek

ez du esan nahi arlo horiek bat etorri behar dutenik Fakultateko Practicumaren eskaintzarekin.

Aipatutako jarduera arloak honako multzo hauetan sailkatu dira:

Hezkuntza arautua:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: bitartekaritza eta koordinazioa eskolan esku hartzen duten sareen artean. Esku-hartzea taldeekin.
- Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa: bitartekaritza eta koordinazioa eskolan esku hartzen duten sareen artean. Esku-hartzea taldeekin.
- Helduen hezkuntza: etengabeko prestakuntza. Arlo akademikokoak ez diren zeregin osagarriak, gizarteratzearekin eta aisialdi-jarduerekin zerikusia dutenak.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak: gizarte-hezitzaileak arlo akademikokoak ez diren zeregin osagarriak izango lituzke, gazteen gizarteratzearekin zerikusia dutenak.

Hezkuntza komunitarioa:

- Dinamizazio kulturantzunak
- Kaleko heziketa
- Familiako heziketa eta esku-hartzea
- Esku-hartzea babes-sistemen bidez
- Esku-hartzea bilakaera-etapa eta kolektibo desberdinetan

Osasuna:

- Osasun-hezkuntza Esku-hartze sozio-hezitzailea Esku-hartzea bilakaera etapa eta kolektibo desberdinetan

Lana eta Gizarte Gaiak:

- Gizarte eta lanerako esku-hartzea gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonekin
- Esku-hartzea etorkinekin
- Gizarte Zerbitzuak (adinekoak, Mendekotasun Legea, ijitoak, etxebizitza babestuak...)
- Esku-hartzea drogazaleekin (adizkioak)
- Garapenerako lankidetzak

Espetxeak:

- Espetxeak: aisialdiaren dinamizazioa eta gizarteratzeko laguntza

Justizia Saila (Epaitegiak):

- Talde psikosozialetako gizarte-hezitzailea.

Ingurumen hezkuntza

1.4. LANBIDE DEONTOLOGIA

Etorkizuneko gizarte-hezitzaileek kasuan kasuko deontologia-kodea bete beharko duten beren jardunean, bertan ezarriko baitira lanbide horietako jardueraren eta erregulazioaren printzipioak, profesionalon jokaera bideratze aldera erantzukizun maila bakoitzean.

1.5. HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak honako egitura hau du, Practicumari begira:

- Practicumeko dekanordea
- Practicumeko Batzordea
- Practicumeko koordinatzaileak (titulu bakoitzeko bana)
- Ikastegiko teknikaria

Antolakuntza-egitura horrek Practicumaren kudeaketa osoa bermatzen du eta era koordinatuan gauzatzen da, kasuan kasuko eginkizun eta erantzukizun espezifikoak nork bere eginda.

2. PRACTICUMA: KREDITUAK ETA EGITEKO EPEA. EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK

Gizarte Hezkuntzako Gradu Prakticum (42 ECTS kreditu = 1.050 ordu

Hirugarren mailan: Practicum I, 12 kreditu = 300 ordu (1. Lauhilekoa)

Laugarren mailan: Practicum II eta III, 30 kreditu/ = 750 ordu (1. eta 2. lauhilekoak)

Gizarte Hezkuntzako Gradu Practicum I bi bloketan gauzatuko da:

- I. Blokea: 2 kreditu/aurrez aurreko 35 ordu: Fakultatean: 2021ko irailaren 20tik 24ra.
- II. Blokea: 10 kreditu/aurrez aurreko 175 ordu: Praktiketako zentroetan: 2020ko irailaren 27tik abenduaren 22ra.

Gizarte Hezkuntzako Gradu Practicum II eta III bi bloketan gauzatuko da.

- I. Blokea: 2 kreditu/aurrez aurreko 35 ordu: Fakultatean: 2021ko irailaren 20tik 24ra.
- II. Blokea: 28 kreditu/aurrez aurreko 505 ordu: Praktiketako zentroetan: 2021ko irailaren 27tik 2022ko maiatzaren 13ra.

Praktiketako **ordutegiak** praktiken ezaugarrien eta erakunde-kolaboratzailearen aukeren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, praktiketako ordutegiak bateragarriak izango dira ikasleek Fakultatean dituzten jarduera akademikoekin, prestakuntza-jarduerekin eta ordezkartza- eta partaidetza-jarduerekin

3. PRACTICUMA ESLEITZEKO PROZEDURA

3.1. AURKEZPEN OROKORRA

Urtero, martxoan, Practicum bakoitzaren informazio aurkezpen orokorra egiten da Fakultateko Areto Nagusian hurrengo ikasturtean Practicumak egiteko betebeharra duten ikasleentzat.

- Salbuespenak salbuespen, ikasleek derrigorrez joan behar dute aurkezpenera. Aurkezpen saioaren prestaketan eta saioan bertan, honako hauek parte hartzen dute: Practicumeko dekanordeak, Practicumeko irakaslego-tutoreak, eta ikastegiko teknikariak.
- Practicumeko dekanordea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicumaren antolakuntza, fakultatearen egitura, bete beharreko epeak, ikasleei emandako informazioaren edukia, ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta, ikasketetako azkeneko mailako Practicuma egingo duten ikasleei begira, Practicuma Garapenerako Lankidetzaren Proiektuetan gauzatzeko programari buruzko informazioa.
- Practicumeko irakaslego-tutorea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicum bakoitzaren helburuak, metodologia, balizko jarduera arloak eta ebaluazio- sistema...
- Ikastegiko teknikaria, azkenik, saioa antolatzeaz arduratzen da, eta Practicumaren kudeaketari buruzko informazioa osatuko du.

Gradu bakoitzeko azkeneko mailan, ***Garapenerako Lankidetzaren arloan egin daiteke Practicuma***. Xede horrekin, unibertsitateko praktikak garapenerako lankidetzaren arloan egiteko laguntzen deialdia egiten duen erabakia argitaratzen du urtero UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzak.

3.2. PRAKTIKEN AURREHAUTAPENA

Practicuma egin ahal izateko, ikasle bakoitzak GAUREko perfilan sartu behar du, "Nahitaezko Praktiken" atalean, Practicumeko aurkezpenean adierazitako epean **praktiketako zentroen aurrehautapena egiteko**.

Ikasle bakoitzak fakultateko eskaintzaren artean, **10 zentro hautatu beharko ditu**, lehentasun-hurrenkeraren arabera, honako irizpide hauek kontuan hartuta: jarduera arloa, zentro mota eta zentroaren kokaleku geografikoa.

Oso garrantzitsua da aurrehautaketa egin baino lehen interesatzen zaizkien zentroi buruzko informazioa biltzea, izan ere, aurrehautaketa amaitzen denean ezingo da aldaketarik egin.

3.3. AUTOPRACTICUM

Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez diren zentroak proposa ditzakete ikasleek. Horretarako, GAUREn dagoen Autopracticuma atala erabili beharko dute beren kabuz bilatutako praktikei buruzko datuak sartuz.

Gainera, Autopracticuma eskatzeko orria Practicumeko bulegoan aurkeztu behar dute proposatutako zentroaren zigilua eta sinadurarekin.

Autopracticum eskaera egiteaz gain, aurrehautapena ere, egin beharko da.

Fakultateko Practicum arduradunek baloratuko dute ikasleek proposatu edo aukeratu dituzten zentroak egokiak ote diren. Beraz, ikasleek proposamen batzuk egin izanak ez du esan nahi aukera horiek automatikoki esleituko direnik.

3.4. ZENTROA ESLEITZEA

Aurrehautapena egiteko epea amaitu ondoren, Fakultateak ezarritako irizpide orokorraren arabera esleituko dira zentroak; beraz, ikasleek beren eskaeretan proposatutako zentroak esleitzen saiatuko da Fakultatea, ahal den neurrian, eta zentroak plaza baieztatu badu.

Esleipenak egiterakoan ikaslegoak adierazitako lehentasunak kontuan hartuko dira. Lehentasunak koinziditzen direnean ikasketa espedientearen erabiliko da.

Kontuan hartuko den espedientearen batz besteko nota, esleipena egiteko orduan GAUREn agertzen dena izango da.

Proposatutako aukera guztiak agortuz gero, Practicumeko Bulegoak egokia den zentro bat esleituko du.

Azkenik, aparteko kasuetan, ikaslearekin elkarrizketa egin dakioko.

Autopracticumarekin esleitzea

Ikasle batek Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez den Autopracticuma aurkeztu badu, proposamena egokia ote den aztertuko du fakultateko Practicum arduradunak, Practicumeko araudia eta plan orokorra kontuan hartuta.

Ikaslearen proposamena egokia dela erabakiz gero, fakultateak zentroarekin harremanetan jarriko da, praktiketako plan bat hitzartuko dute eta dagokion lankidetzaren hitzarmena izenpetuko dute.

Aldiz, ikaslearen proposamena desegokia dela erabakitzen bada, proposamena atzera botako du eta zentroa hautatzeko atalean adierazitako aukerak hartuko ditu kontuan.

Plaza guztiak esleitu ondoren, esleipena argitaratuko da, adierazitako epean, GAUREn bidez, adjudikazioen atalean.

3.5. ERREKLAMAZIOAK

Esleitutako zentroen behin behineko zerrenda argitaratu ondoren, esleitutako zentroarekin ados ez dauden ikasleek lau laneguneko epea izango dute erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak eskaria ofizialaren bidez egingo dira eta Practicumeko Bulegoan aurkeztu beharko dira, eskura.

Erreklamazioak ebaztea

Erreklamazioak aztertu ondoren, behin betiko esleipenak argitaratuko dira. Une horretatik aurrera ezin izango da aldaketarik egin.

4. ARAUAK

Practicumetan matrikulatutako ikasleek praktiketako irakasle-tutore bat izango dute Fakultatean, baita instruktore bat ere praktiketako zentroan. Tutoreek ikaslea bideratuko dute eta prozesu osoaren jarraipena egingo dute.

Ikasleak ez baditu betetzen Practicumeko betebeharrak, Practicuma ez-gainditutzat eman daiteke.

Practicuma bere osotasunean baloratzen denez, gainditutzat emateko, bertako zati guztiak gainditu beharko dira, zentroko egonaldia, fakultateko lanak eta jarraipen mintegiak.

Practicum I gainditu ez duten ikasleek ezin izango dute, inola ere, Practicum II edo III-ko matrikula egin.

Gizarte Hezkuntzako laugarren mailako Practicumari dagokionez (Practicum II eta III), prestakuntzako continuum gisa diseinatuta dago eta balorazio orokorra egin behar da.

Gizarte Hezkuntzako Practicum I, II eta III ezin dira ikasturte berean egin, funtsezko arrazoi hauek tarteko:

1. Batetik, guztizko ordu kopurua kontuan hartuta ezinezkoa delako.
2. Eta bestetik, moduluak lauhilekoka antolatuta daudenez, Practicum I eta II lehenengo lauhilekoan egin beharko lirartekeelako.

Practicuma enborreko irakasgai bat da, eta, beraz, errespetatu beharreko ordutegi bat dauka zehaztuta. Data aldaketa egin ahal izango da bakarrik kasu berezi eta justifikatuetan. Horretarako eskaera aztertuko da.

Data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste ikasturte edo irakasgai batzuetara hutsik egiteko.

Ikaslegoak zenbait egun edota orduetan praktiketako zentrora joateko ezintasuna alegatzen duenean justifikazio- agiria aurkeztu beharko du bai zentroan, bai fakultatean.

Ikasleek Fakultatean garatuko den fase bakoitzeko saioen % 80a bildu beharko dute gutxienez, jarraipen-mintegiak barne. Era berean, praktiketako zentroan egin beharreko orduen % 100 bete beharko dute, eta, hutsegiteren bat eginez gero, behar bezala justifikatu beharko dute.

Pertsona batek, lan-arrazoiak direla tarteko, practicuma ohiko moduan egin ezin badu, gainerako irakasgaietan aplikatzen den protokolo orokorrari jarraitu beharko dio; hortaz, eskari bat egin beharko dio gradu koordinatzaileari, eta laneko ordutegia adierazi beharko du bertan. Kasu horietan, tituluko koordinatzaileak jakinaren gainean jarriko ditu Practicumeko Dekanordetza eta practicumeko tutorea.

Ikasle bat fase bakoitzeko jardueren % 80 baino gutxiagora bakarrik bil badaiteke, jarraitutasunik gabe, eta behar bezala justifika badezake, tutoreari jakinarazi beharko dio, eta enpresaren sinestamendua edo ziurtagiria eta aurreikusitako egutegia aurkeztu beharko ditu.

Kasu horietan, tutoreak ordeztu jarduera bat proposatuko dio ikasleari.

Ikasle bat lanean ari bada eskuratu nahi duen tituluko praktika-zentro izan daitekeen zentro batean, zentro horretan egin ditzakete praktikak, aurretik autopracticumaren eskaria egiten badu. Horretarako, enpresaren ziurtagiria

aurkeztu beharko du autopracticumarekin batera, eta bertan adierazi beharko du enpresa horretan lan egiten duela, baita zer ordutegi duen ere.

Kasu horretan, gainera, Prestakuntza Proiektuan argi eta garbi bereizi beharko dira lanbideko eta practicumeko helburuak, eginkizunak eta edukiak.

Nolanahi ere, ikasleak praktiketako prozesu orokorrari jarraitu beharko dio (mintegiak, zereginak...).

Practicuma Sicue-Seneca mugikortasun-programaren bidez egiten ari diren ikasleei dagokienez, honako jarduera-prozedura honi jarraituko zaio:

- Dekanotzak ikaslearen jatorrizko zentroarekin negoziatuko ditu egin beharreko kredituak eta kredituen aitortpen akademikoa.
- Practicumeko Dekanordetzak egin beharreko orduen berri emango du, eta baita tutoreari esleitutako praktiketako zentroaren berri ere.
- Tutoreak, egin beharreko ordu kopuruaren eta beste aldagai batzuen arabera, Prestakuntza Proiektua hitzartuko du ikaslearekin. Era berean, ikaslearekin erdietsitako akordioaren berri emango dio Practicumeko Dekanordetzari.

2010eko ekainaren 22an Fakultateko Batzarrak hartutako erabakiari jarraituz, **ikasturteko deialdi bakarra** egiten da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko tituluetakoko **Practicumetarako**. Balorazioa orokorra denez, deialdi bat gainditzen ez bada, hurrengo deialdian prozesu osoa gauzatu behar da.

Beste irakasgai bat bezela denez, Practicuma automatikoki Eskola Aseguruak babestuko du.

Practicumerako ezarritako epea gainditu izanagatik ere, ikasleek praktikak egiten jarrai dezakete. Kasu horretan, ikaslea *borondatezko praktikak* egiten ari dela esango genuke, eta horretarako, Fakultatean ezarritako baldintzak bete beharko liriateke.

Practicumak prestakuntza-izaera duenez, erakundeek edo zerbitzuek ez dute lan arloko betebeharririk izango. Bestalde, zentroek ezin izango dute Practicumeko ikasleekin lanposturik bete, ikasleak praktikak egiten ari diren bitartean.

5. PRACTICUMA ABIAN JARTZEA

Practicum guztien programak, uztailean, Fakultateko Practicumeko web orrian argitaratzen dira. Programa bakoitzean Practicumaren hasierako eguna, ordua eta tokia zehazten dituen kronograma bana agertzen da.

Practicumak **Prestakuntza Proiektu** bat izango du, Practicuma egiten duten ikasle guztientzat balioko duena baino kasu eta zentro bakoitzera egokituko dena. Horretarako, ikasleak, zentroko instruktoreak eta Fakultateko irakasle-tutoreak ados egon beharko dute. Harreman horiek Practicumak irauten duen bitartean mantenduko dira.

5.1. ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARTZEA ETA IKASLEEI DEIALDIA EGITEA

Adierazitako epearen baitan plazak esleitu eta zerrenda argitaratu ondoren, ikasleek jakingo dute zer zentrotan egingo dituzten praktikak, baino **ez dira zentroarekin harremanetan jarriko, Fakultateko irakasle-tutoreak harremana ezarri bitarte.**

Fakultateak zentroarekin lehen harremana izan ondoren, ikasleari bilera baterako deia egingo zaio zentrotik, eta une horretatik aurrera, Practicuma abiatuko da.

5.2. PRACTICUMA HASTEAK PRAKTIKETAKO ZENTROAN

Fakultatean lehenengo bilera egin ondoren, ikaslea dagokion zentroarekin harremanetan jar daiteke. Zentrorra joan aurretik, tutorearekin hitzordua egin beharko du.

Praktikak hasi baino lehen, ikasle bakoitzak “XI. Eranskina” eta “Isilpekotasun- konpromisoa orria” bete beharko ditu. Dokumentu hauek Practicumeko web orrian eskuratu daitezke.

Aipatutako bi dokumentuak Practicumeko lehenengo egunean zentroko instruktoreari eskura eman behar zaizkio

6. PRACTICUMEKO TUTORETZA GAUZATZEKO PROZEDURA

6.1. TUTORETZA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Practicuma egin ahal izateko, ikasleek bi tutore izango dituzte: batetik, praktiketako zentroko tutorea, eta bestetik, Fakultateko ikasketa-tutorea.

Zentroetako tutoreek baldintza hauek betetzea komeni da: profesional esperientziadunak izatea, tutoretza modu eraginkorrean gauzatze beharrezkoak diren ezaguerak izatea, eta ikaslea egiten ari den ikasketen maila bereko prestakuntza izatea.

6.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Praktiketako zentroko instruktoreak honako **eskubide** hauek izango ditu:

- Bere lankidetzat aintzat hartzeko eskubidea, dagokion ziurtagiria eginda.
- Fakultatetik kanpo egiten diren praktikak erregulatzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Unibertsitatean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.

Era berean, praktiketako zentroko instruktorearen **betebeharrak** izango dira:

- Ikaslea onartzea eta, Fakultateko tutorearekin koordinatuta, ikasleak gauzatu beharreko jarduerak antolatzea; baita ikaslea praktikak egiten ari den bitartean egon daitezkeen gorabeherak komunikatzea, konpontzea eta ikaslea bertaratzen dela kontrolatzea ere.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikak bideratzea eta kontrolatzea, eta ikasleak gorabehera profesionalak dituenean, horiek konpontzen laguntzea.
- Ikasleari zentroko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea; era berean, intereseko araudia ezagutaraztea, batez ere segurtasunaren eta laneko arriskuen arlokoa.
- Ikasleei prestakuntza osagarria eta baliabide materialak ematea, praktikak egin ahal izateko.
- Ikasleei erraztasunak eta bultzada ematea, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezen eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.
- Bere lanbide-jardunaren edukiak azaltzea ikasleei.
- Instrukto-re lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.
- Ikaslearen Practicuma ebaluatzea.

6.3. FAKULTATEKO TUTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Fakultateko tutoreak honako **eskubide** hauek izango ditu:

- Bere jarduera akademikoa aintzat hartzeko eskubidea, indarreko legediaren arabera.
- Praktikak erregulatzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Erakunde kolaboratzailean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Era berean, Fakultateko tutorearen **betebeharrak** izango dira:

- Prestakuntza Proiektua gorabeherarik gabe gauzatu dadin zaintzea, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebeharrak akademikoak, prestakuntza-betebeharrak eta ordezkartza- eta partaidetza-betebeharrak bateragarriak izan daitezen bermatzea.
- Praktiken jarraipena egitea, erakunde kolaboratzaileko tutorearekin koordinatuta (gutxienez hiru aldiz ikasturtean zehar).
- Ikasleak praktiketako zentroan egiten dituen jarduerak edo zereginak gainbegiratzea eta bideratzea. Ikaslearen jarduera edo zereginen jarraipena egitea (gutxienez bost saio ikasturtean zehar).
- Ikasleek gogoeta egin dezaten bultzatzea eta errealitate profesional desberdinetako esperientzien eta ezagueren trukea sustatzea.
- Egunerokoa eta Azken Txostena egiteko informazioa, lan-tresnak eta gidalerroak ematea.
- Praktikak ebaluatzea, praktiketako zentroko instruktoreak egindako ebaluazioa eta ikasleak egindako balorazioa kontuan hartuta.

6.4. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Ikasleak honako eskubide hauek izango ditu Practicum egiten dituen bitartean:

- Bi tutore izateko eskubidea: batetik, unibertsitateko irakasle bat, eta bestetik, praktikak egingo dituen enpresako edo erakundeko profesional bat.
- Ebaluatzeko eskubidea, Fakultateak ezarritako irizpideen arabera.
- Praktiketako zentroak egindako ziurtagiria jasotzeko eskubidea, praktiketan egin dituen jarduerak eta praktiken iraupena berariaz adierazita.
- Dagozkion jarduera-akademikoak, prestakuntza-jarduerak eta ordezkartza- eta partaidetza-jarduerak egiteko eskubidea, praktiketako zentroari beharrezkoa den aurrerapenez jakinarazi ondoren.

Era berean, Practicumeko ikaslearen betebeharrak izango dira:

- Fakultateko Practicumaren araudia betetzea (prozedurak, datak eta egutegiak errespetatzea).
- Praktiketako zentrori esandako egunean joatea, tutoreekin ezarritako planean aurreikusitako ordutegia betetzea eta praktiketako zentroko funtzionamendua, segurtasun-neurriak eta laneko arriskuen prebentziorako neurriak errespetatzea.
- Praktikak egiten dituen bitartean unibertsitateko tutorearekin

harremanetan egotea eta edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, eskatzen dizkioten dokumentuak eta txostenak aurkeztea, adierazitako epean eta eran.

- Zentroan dagozkion jarduerak egitea, praktiketako zentroko instruktorearen eta fakultateko tutorearen zuzendaritza, laguntza, gainbegiraketa eta aholkuei jarraituz.
- Fakultateko tutorearekin egingo diren lan-saioetara eta mintegietara joatea eta horietan parte hartzea. Saio horietara joatea derrigorrezkoa da eta, beraz, ikasleak bertaratu ezin badu, aldez aurretik jakinarazi beharko du.
- Practicumeko Azken Memoria egitea eta aurkeztea, ezarritako epean.
- Erakunde kolaboratzaileari buruzko informazioa isilpean gordetzea eta egin dituen jardueren gaineko lanbide-sekretua gordetzea, bai praktikak egiten ari den bitartean, bai praktikak amaitu ondoren.
- Praktiketako zentroko politika, lan-kultura eta antolakuntza errespetatzea, beti.

7. GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM I-EN GARAPEN METODOLOGIKOA

7.1. AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Practicum I-ek 12 kreditu ditu, eta elkarren osagarri diren bi bloketan banatuta dago.

I. Blokea (fakultatean): 2 kreditu ECTS = 50 ordu: 35 ordu presentzialak 15 ordu ez presentzialak

II. Blokea (praktiketako zentroetan): 10 kreditu ECTS = 250 ordu: 175 ordu presentzialak eta 75 ordu ez presentzialak

7.2. I. BLOKEA

7.2.1. Helburua

Aurretiko prestakuntzaren eduki adierazgarrienak erlazionatzea jarduera praktikoen azterketari begira, Gizarte Hezkuntzako eremu profesionaletan sakonduta; zeintzuk diren profesionalak eta zer profil duten, eta zergatik, zertarako eta nola gauzatzen duten heziketa-lana.

7.2.2. Prozedura metodologikoa

Prozesu metodologikoa sei gune hauen inguruan egituratuta dago:

- **Practicuma aurkeztea eta kokatzea:** Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta. Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudiari eta ikasleek bete beharreko eraranskinei buruzko aurkezpena.
- **Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta:** Ikasleek berriro ekingo diote aldez aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.
- **Gizarte Hezkuntzako zentro, zerbitzu eta erakunde adierazgarrien aurkezpena:** Zenbait hezkuntza-zentro aurkeztuko dira, ikasleek zentro horien zeregin sozio- hezitzaileari eta antolakuntzakoari buruzko informazioa eskuratu eta kontrastatu dezaten.
- **Ikasleen adierazpenak:** Laugarren mailako ikaskideek Practicumeko ikaskuntza irakaskuntza prozesuen eta ibilbidearen sintesia egingo dute, eta hala, ikasleek oinarri gehiago izango dituzte praktiketako zentroetako ibilbideari ekiteko.
- **Trebetasun profesionalak, harremanetarako trebetasuna eta lanbide-deontologia:** Ikasleek lan prozesu batean parte hartuko dute, eta bertan, harremanetarako trebetasun profesionalak landuko dira. Horretarako, funtsezkoa da Gizarte Hezkuntzako deontologia-kodea eta etika profesionala errespetatzea.

- **Practicum I-era egokitutako metodologia-tresnen berreraikitzea:** Ikasleek hainbat lantegitan parte hartuko dute, eta, horietan, praktiketako zentroari behatzeko teknikak eta haren kokatze instituzional eta administratiborako teknikak landu daitezke, besteak beste. Era berean, egunerokoaren teknika ere landuko da, datuak biltzeko tresna den aldetik, ariketa praktikoaren bidez.

7.3. II. BLOKEA

7.3.1. Helburua

Bloke honetan egingo den lanaren helburua da ikaslea rol profesionalera ohitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean. Beraz, ibilbide profesionalean nola jardun daitekeen jakingo dute, testuinguru jakin batean, eta unibertsitatean eskuratutako prestakuntza teoriko eta praktikoaren edukiak kontrastatuko dituzte.

7.3.2. Prozedura metodologikoa

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

- **Gizarte Hezkuntzako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan:** Practicum I-eko zati honen helburua da ikasleak lehenengo harremana egitea praktiketako zentroarekin, lan-esperientzia eskuratzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleak praktiketako zentroetara joatea eta parte-hartzea.
- **Jarraipeneko mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean:** Mintegiak Practicumean parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza- esparrua dira. Mintegietan ikaskuntza eta ezaguerak sustatzen eta sozializatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, gizarte- hezitzailearen lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

8. GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM II ETA III-AREN GARAPEN METODOLOGIKOA

8.1. AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta III-ek 30 kreditu ditu. 12 Kreditu lehenengo lauhilabetean eta 18 bigarren lauhilabetean, hurrenez hurren.

Practicum bakar bat bezala ulertzen da eta elkarren osagarri diren bi bloketan banatuta dago:

Blokea (fakultatean): 2 kreditu ECTS = 50 ordu: 35 ordu presentzialak 15 ordu ez presentzialak

Blokea (praktiketako zentroetan): 28 kreditu ECTS = 700 ordu: 505 ordu presentzialak eta 195 ordu ez presentzialak

8.2. I. BLOKEA

8.2.1. Helburua

Ikaslea laugarren mailako practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko egokiak diren ikaskuntza-tresnak zehazten laguntzea.

8.2.2. Prozedura metodologikoa

Tituluko laugarren mailako practicumak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboen bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundeen esparruetan aldeztu aurretik kokatzeari, eta horretarako funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Prozesu metodologikoa bost gune hauen inguruan egituratuta dago:

- 1. Practicum II eta III aurkeztea eta kokatzea:** Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta. Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudiari eta ikasleek bete beharreko eraranskinei buruzko aurkezpena.
- 2. Aukeren azterketa eta doikuntza:** Taldearen esparruan, ikasleek aldeztu aurretik detektatu dituzten aukerak aurkeztuko eta aztertuko dira, eta, banaka, laugarren mailako practicumetik espero dutena eta espero dezaketena berrikusiko eta pentsatuko dira.
- 3. Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta:** Ikasleek berriro ekingo diote aldeztu aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.
- 4. Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak:** Ikasleek hezkuntzako esku-hartzea eta rol profesionalaren garapena bultzatzera bideratutako gaitasun profesionaleri buruzko lan-prozesu batean parte

hartuko dute.

- 5. Practicum II eta III-ra egokitutako metodologia-tresnen berreraikitzea:** Ikasleek hainbat lantegitan parte hartuko dute, eta, horietan, aribidean dauden programak aztertzeko eta/edo ebaluatzeko teknikak eta diseinu-proposamenen plangintza landu daitezke, besteak beste.

8.3. II. BLOKEA

8.3.1. Helburua

Bloke honetan egin beharreko lanaren bidez bultzatuko da: batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean; eta, bestetik, ikaslea **profesional bezala trebatzea, zuzeneko esku-hartzearen bidez.**

8.3.2. Prozedura metodologikoa

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

- 1. Gizarte Hezkuntzako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan:** Practicum II eta IIIaren zati hau hasierako harreman- eta behaketa-fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalean integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezko dituen gaitasunak gara ditzaten.
- 2. Jarraipen-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean:** Mintegiak practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparrua dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren Prestakuntza Proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-, ekoizpen- eta komunikazio- guneak dira. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Gizarte Hezkuntzako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen.

Honako hauek dira intereseko gaietako batzuk: jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abian jartzea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte- eta lan-esparruko baldintzak, prestakuntza-beharren proiektzioa.

9. AZKEN MEMORIA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharra idatziko ditu eguneroko batean.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira:

I. PRACTICUMAREN MEMORIAREN EGITURA

1. Sarrera. Memoriaren aurkezpena

2. Zerbitzuaren edo programaren analisia

2.1. Testuingurua eta eremu soziokulturala

2.2. Administrazioa, legeria

2.3. Garatzen duen erakundea (eskaintzen dituen zerbitzuak, programak, esku-hartze motak, etab.)

2.4. Zerbitzuaren aurkezpena, programa:

2.4.1. Zer? Zerbitzuaren edo programaren izenburua

2.4.2. Zergatik? Oinarriak, zer premiari erantzuten dion

2.4.3. Zertarako? Helburuak

2.4.4. Norentzat? Hartzaileak

2.4.5. Nola? Esku hartze metodologikoa

2.4.6. Nortzuk? Esku hartze taldea (giza baliabideak). Gizarte-hezitzailearen lanbide-profila eta betetzen dituen eginkizunak eta gaitasunak

2.4.7. Norekin? Beste batzuekin koordinatzea

2.4.8. Zerekin? Baliabide materialak

2.4.9. Noiz? Denboralizazioa

3. Praktika prozesua

Praktiken hasieran aurkeztutako prestakuntza-proiektuaren arabera (1. eranskina), adierazi zer dedikazio, zeregin eta funtzio bete diren, zer gaitasun eskuratu diren, eta zer metodologia erabili den informazioa, gertakaria kritikoak eta abar biltzeko. Halaber, hasierako prestakuntza-proiektuari dagokionez egindako aldaketak jasoko dira.

4. Egindako lanaren azterketa eta hausnarketa (Hausnarketa alderdi hauei buruz)

4.1. Zerbitzu edo programako partaideekin hezkuntza-harremana.

4.2. Komunitatearekin harremana

4.3. Profil profesionala

4.4. Hezitzaile lan taldea

4.5. Kode etikoa

4.6. Nire parte hartzea: Prestakuntza ibilbidearen azterketa; Ikaskuntza adierazleak; gabeziak-indarguneak eta proposamenak; profesional moduan auto-

pertzepzioa

4.7. Practicuma prozesuaren inguruko inplikazio mailaren hausnarketa

4.8. Ikasle proiektu profesionalari ekarpenak

4.9. Practicumaren alde positiboak eta hobetu beharrekoak

5. Praktiken balorazioa eta bizipen pertsonala

Practicum prozesuaren balorapena, ondorioa eta itxiera. Honetarako, gomendagarria da gogoeta egunkaria erabiltzea, txostenean eranskin gisa jasoko dena.

* Azken lanaren puntuak eta ordena orientagarriak dira. Lana puntu horiei buruzko informazioa jaso behar du, eta ez da ezinbestekoa egitura horri jarraitzea.

II-III. PRACTICUMAREN MEMORIAREN EGITURA

1. Sarrera. Memoriaren aurkezpena

2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analisia

2.1. Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jarduera arloa erregulatzen duen araudia.

2.2. Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.

2.3. Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.

2.4. Zentroak garatzen duen ekintzaren esparru sozio-hezitzailea

3. Practicum lan garatutako ekintzaren jasotze eta azterketa

3.1. Prestakuntza Proiektuaren errebisioa: praktiketako helburuak, landu beharreko gaitasunak, dedikazioa, garatutako eginkizunak eta funtzioak

3.2. Zentroaren beharren identifikazioa, testuinguru zehatz batean txertaketa, profesional rolari dagokion gaitasunak kontutan izanik

4. Esku-hartze proiektu baten diseinua, martxan jartzea eta ebaluazioa

4.1. Praktiketako zentroaren esku hartze proiektu, programa edota ekintzen azterketa

4.2. Beharren ebaluazioa/detekzioa eta esku hartzearen helburuaren zehaztapena

4.3. Esku hartze proiektuaren/egitarauaren diseinua eta planifikazioa

4.3.1. Proiektuaren kokapena eta hartzaileak

4.3.2. Prozesuaren helburuak

4.3.3. Metodologia eta hezkuntza estrategiak

4.3.4. Denboralizazioa

- 4.3.5. Baliabideen aurreikuspena
- 4.4. Martxan jartzearen prozedura
- 4.5. Ebaluazioa, mugak eta hobekuntzarako proposamenak

5. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala

- 5.1. Praktiketako ibilbidea
- 5.2. Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ezarritako helburuen errebisioa eta ikaskuntzaren emaitzak.
- 5.3. Practicumeko lantaldea: mintegietan eta praktiketako zentroan. Ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.
- 5.4. Profesionalizazioa: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lan- baldintzak, autopertzepzio profesionala.
- 5.5. Practicumaren balioespen orokorra, norberaren bizipenetan oinarritu.

Practicum IIko Memorian, aurreko gidoiko 1, 2 eta 3 puntuak sartuko dira. **Urtarrileko bigarren astean zehar aurkeztuko da.** Practicum IIIko 4. eta 5. puntuak kontutan hartuko dira eta **Maiatzaren bigarren astean zehar entregatuko da.**

* Aurkeztutako ordena orientagarriak da. Lanak puntu horiei buruzko informazioa jaso behar du, baina ez da ezinbestekoa egitura horri jarraitzea.

10. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egiterakoan hurrengo bi atalak izango dira kontuan. Batetik, Fakultatean egindako lana dago, eta bestetik, praktiketako zentroan egindako lana. Fakultatean egindako lanari dagokionez, Practicum lean 5 puntu bitarte esleituko zaio bai fakultatean antolatutako ekintzetarako asistentziari eta parte hartzeari, bai azken txostenari. Practicum II-IIIan berriz, 2,5 puntu bitarte esleituko zaio aurkeztu behar duten dokumentazioari eta ikasleak egindako ibilbideari eta beste 2,5 puntu bitarte azken txostenari.

Azken nota bi atal horien baloraziotik aterako da, %50ean.

Practicuma gainditzeko, bi atalak gainditu beharko dira nahitaez.

10.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako elementu hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Aldez aurretik fakultatean ezarritako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta parte hartzea.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.
- Jardun profesionalerako estrategiak eta prozedurak erabiltzea eta garatzea.
- Practicumeko Azken Txostena: ebaluazio irizpideak
 - Txostenaren irizpideei eta egiturari egokitzapena: argitasuna eta koherentzia datuen aurkezpenean. Agiriaren idazkera unibertsitate mailari egokituko da.
 - Zehaztasuna, zorrotasuna eta argitasuna txostenaren aurkezpenean eta argudiaketan. Lanbideari dagokion hiztegi zuzenaren erabilera.
 - Analisiaren sakontze maila eta burututako praktikei buruzko gogoeta.
 - Gizarte Hezkuntzako rolaerako konpromezua garatutako lan eremuan. Ikasketen zehar landutako prestakuntza akademiko-zientifiko esparruan, profil profesionalaren inguruko analisisa eta gogoeta.

10.2. PRAKTIKETAKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldez aurretik jasoko du, eta bete ondoren, fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako elementu hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Praktiketako ordu guztiak egin izana aldez aurretik erabakitako egutegiaren eta ordutegiaren arabera.
- Jardueren betetze maila, ardura, adierazitako gaitasuna, jakin-mina, jarrera arduratsua eta gogoetatsua izatea.
- Elkarlanean aritzea, profesional-taldearen esparruan, iniziatiba.
- Ebaluazio orriaren betetzea

11. KONTAKTU INTERESGARRIAK

- Practicumeko dekanordea: **Esther Cruz**(esther.cruz@ehu.eus); tfno.:943- 018238;
- Practicumeko koordinatzailea: **Jon Mikel Luzarraga** (jonmikel.luzarraga@ehu.eus); tfno.: 943- 015097; **Joana Miguelena** (joana.miguelena@ehu.eus Tfno.: 943 01 5599)
- Practicumeko teknikoa: **Mertxe Torres** (hefa.practicum@ehu.eus); tfno.: 943-015562

12. PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA

Practicumari dagokionez, indarrean dagoen legedia honako hau da:

- *1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituena.*
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>.
- *Ikasleen Kanpoko Praktika akademikoen araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuta.*
http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado
- *(2004) Gizarte Hezkuntzako Deontologia Kodea. Toledo.*
<http://www.eduso.net/red/codigo.htm>